


Ioan Cauni Priala

B maila • Aipamena

Nire izena Ioan Cauni Priala da eta Errumaniarra naiz, 2001ko uztailaren 7an jaio nintzen eta Beasainen bizi naiz guraso eta arrebeekin. San Benito ikastolara joaten naiz eta DBHko laugarren mailan nago. Gustuko dut marraztea... Kirola maiz egiten dut; mendira joan, bizikletan ibili... Gehienetan, irakurri ere egiten dut. Bigarren aldia da Beasaingo idaz lehiaketan sari edo aipamena jasotzen dudala.



URTAROAK ZU OROITUZ

Negua izan zen...
Zerutik eroriz elur maluta
Zutaz jarri nintzen pentsatzen
Zure aurpegia elur maluta bezain polita
Udaberria izan zen...
Nire desioa, zu nire ondoan
Parkean zu eta nitaz zerbait oroitu
Bi tximeleta elkarrekin pagoan
Uda izan zen...
Itsasora nire begiradaz
Ezin ikusi itsas zeru muga
Oroituz, zu eta nire maitasun infinituaz
Udazkena izan zen...
Hegaztiak lur beroetara joanez
Ni eta zu lotuta gaudela oroituz
Elkarrekin maitasun imanez
Ez dakit noiz hasiko zaren
Zu esaldi hauek irakurtzen
Ez naiz oroituko, ezin dudalako
Baina ez ahaztu, zu eta nire maitasuna
bihotzean gorde nuelako